


Juan Karlos Alberdi Martiarena, agur, adiskidea



87ko martxoan idatzi zidan Juan Karlos-ek lehenengo gutuna, filosofia egiteko asmoarekin. «*Estoy leyendo a Platón*», esan zuen. Erdaraz idazten zuen: «*Te escribo en castellano para que llegue esta carta en un tiempo razonable*». Halere, bi hilabetetik behera inoiz ez zen pasatzen, nik haren kartak hartzeko eta hark nireak. «*De todas formas me interesaría, trabajar en euskera, aunque preveo que no va a ser fácil con determinados temas*». Beti J.K.A. sinatzen zuen. Gutunak beti erdaraz egin behar izan dizkiogu elkarri, baina berak lan denak beti euskaraz egiten ditu.

Euskara ondo, oso ondo menderatzen zuen (euska! Filologia eginda zeukan). Nabarmen erakusten zuen lan bakoitzean, hiztegiez eta baliatuz, bere kabuz ere soluzioak asmatzen ahaleginduz, interes handiarekin lehiatzen zela, terminologia filosofikoa garatzen. «*Las condiciones actuales y no actuales son duras y difíciles en las cárceles 'democráticas' y ya son muchos años, pero se hace lo que se puede*».

Eskolan ez da samurregia izaten, ezin izan daiteke erraza filosofia gartzelako bakardadean ikastea. Elkarrizketa filosofikoaren premia nabaritzen zuen. «*Muchas veces me gustaría poder escribirte, pues las dudas y kezkak, ue tengo con un tema que me gusta, por la filosofía, son muchas*». Baina gutun bidez zaila da gai bati buruz egiazki elkarrizketzea. Oraintxe hartutako lan batean, ere **Protagora**-ren komentarioa, «*hitz idatziaren pasibitateaz, hitz mintzatuarekin gonbaratuaz*», mintzo da **Fedro**-ko pasarte bati aludituz. Sarrionaindia ere horrelako zerbaitetaz ari da azkeneko liburuan. Beharbada gartzelako esperientzia berezi bat dago. Baina beste edozein momentutan bestelako arrazoiak izaten ziren, elkarrizketa mozten zigutenak. «*Tu carta tardó más de lo debido, pues hizo un viaje largo hasta llegar al hospital*». Bi hilabete

egon zen, belarriko operazio bategatik.

Gartzelan bezala hospitalean, borondate indar gogor batekin jarraitzen zuen ikasten («*en lucha con la miseria que nos rodea*»). Kosta egiten zitzaion, filosofiako gaiak euskaraz ematea, baina bihoztoi eta gustora egiten zuen: «*También irán en euskera (hurrengo lanak), que aunque me está costando, más que nada por el tiempo que lleva, lo hago a gusto y pienso que tiene que ser así*».

Ez al zen absurdua, elkarri erdaraz hitzeging beharra?

Orain, irratia, hil egin dela. Komentariok gabe geratzen naiz. Hitzik gabe. Paperak biltzen hasten naiz, familiarri entregatzeko. Irekitzen ditut, hil baino lehentxeago eginak izan behar dituen azkeneko idazlanak, eta hotzikaraz gelditzen naiz. **Fedon**-en komentarioan idatzi duen lehenengo frasea irakurritz: «*Sokratesen helburu nagusia, Fedon obran, heriotzaren filosofia, ongi hiltzeko teoriaren tuiuketa izan da*». Ez daki batek, zer pentsatu.

Agur, adiskidea.

JOXE AZURMENDI

«*Zer naiz bada? Pentsatzen dudana gauza. Eta zer da pentsatzen duen gauza? Dudatu, ulertu, baieztatu, ukatu, nahi duena eta nahi ez duena, irudikatu ere egiten duena, eta sentitzen duena*».

Heldu berriak ziren Herrera-tik Juan Karlos Alberdi-ren azterketak. Oraindik begiratu gabe neuzkan, heriotzaren berria jakin dugunean. Letra txiki oso txukunean, eskuz idatzia, Descartes-en **Meditazio Metafisiko**en araketa bat. 19 foliotako lan arretatsua, Descartes-en arrazoipidea urratsez-urrats jarraituz. «*Zer naiz bada*». Planton-en hiru elkarrizketaren laburpen azalpenak, **Oturuntza**, **Fedon** eta **Protagora**. So-break ekainaren 7ko mataseilua du.